



Book Trailer Lehiaketaren 8. edizioa

Liburu Gaztea Saria 2000-2001 ikasturtean jarri zen martxan Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta harrez gero, etenik gabe gauzatu da ikasturtez ikasturte. Hemezortzi urte hauetan izan da aldaketarik, noski, garrantzitsuena 2012-2013 ikasturtean eman zen Liburu Gaztea Saria izatetik Liburu Gaztea Book Trailer Lehiaketa izatera pasatu zenean. Horrekin, gazteei proposatutako irakurgaiez gozatzeko beste modu bat eskaintzea izan da gure asmoa.

Iragan ikasturtean seigarren edizioa bete zuen Book Trailer Lehiaketak eta orain arteko onenetakoa izan zen, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki aztertuta.

2019-2020 ikasturtean zortzigarren edizioa izango du Liburu Gaztea Book Trailer Lehiaketak eta espero dugu aurreko honek bezain harrera ona izatea.

Irakasleentzat BOOK TRAILER LANTEGIA

Lehiaketan izena ematen duten ikastetxeetako irakasleentzat formazio saio praktikoa egingo da urrian: Book Trailer Lantegia. Saio horretan book trailerrak egiteko **edizio tekniketan** sakonduko dugu, zuetako askok lehengo edizioan eskatu zenuten bezala. Baita ere, lantegi honetan, book trailerrak egiteko Stop motion teknika landuko da ariketa txiki batzuen bidez.

Izena eman ondoren jasoko duzue lantegi honen informazio zabalagoa.

Jakizue, ikasturte honetan ere lehiaketan izena ematen duten ikastetxeek bakarrik jasoko dutela liburu bakoitzaren unitate didaktikoa, ez dira Liburu Gaztea web gunean deskargatzeko moduan egongo.

BIDEO TUTORIALA berria

Lehiaketaren inguruko BIDEO TUTORIAL bat sortu dugu edizio berri honetan. Book trailer bat nola egin eta Liburu Gaztea Book Trailer Lehiaketan nola parte hartu jakiteko azalpenak aurkituko dituzue bertan (laster egongo da web gunean ikusgai).



Lehiaketaren oinarriak:

1. Ikasle bakoitzak aukeratutako titulua irakurriko du: [AURTENGO PROPOSAMENAK](#) zerrendatik edo [EZINBESTEKO](#)en zerrendatik hautatutako liburu bat. LIBURUAK atalean dauden beste zerrendetako liburuak ez dira lehiaketan sartuko.
2. Ikasgela bakoitzak irakurri duen liburuaren gaineko book trailer edo erreseina interaktibo bat egin beharko du, eta, ondoren, **2020ko MARTXOAREN 6a** baino lehen Liburu Gaztearen webgunean zintzilikatu. Book trailerrak **lauko taldeetan** egitea gomendatzen dugu, sari nagusia ere lau lagunentzako izango baita.
3. Book trailer edo erreseina interaktiboa modu errazean egin daiteke, egungo teknologiak erabiliz. Azalpen guztiak, book trailerra egiteko urrats guztiak, **BIDEO TUTORIAL INTERAKTIBO** berri batean izango dituzue Liburu Gaztea webgunean. Hortaz, ez dira ikastetxez ikastetxeko formakuntza saioak eskainiko, baina irakasleei zuzendutako **JARDUNALDI** bat egingo da urrian.
4. Hala ere, Galtzagorri Elkartearen zuzenbidea eta zalantzei erantzuteko prest izango da ikasturtean zehar. Horretarako gure e-posta emango dizuegu: liburugaztea@galtzagorri.eus
5. Liburu Gaztea Lehiaketan book trailer edo erreseina interaktibo hoberenak sarituko dira. Horrek esan nahi du, lan hori **webgunean zintzilikatzen** duenak soilik duela irabazteko aukera.
6. Bi modutan har daiteke parte lehiaketan: **Ikastetxeen kategorian** edota **Norbanakoen kategorian**. Baina ezin da book trailer bera aurkeztu bi kategoriatan. Ikastetxeen kategorian parte hartzeko, aurrez izena ematea eskatzen da. Izen-ematea **2019ko IRAILAREN 20an** amaituko da. Norbanakoen kategorian ez dago izena eman beharrik, nahikoa da bakoitzaren adinari dagokion liburua irakurri eta book trailerra berau lehiaketako azken eguna baino lehen bidaltzea.
7. Book trailerren **iraupena**: Gehienez, 2 min.ko iraupena duten lanak onartuko dira.
8. Ez dira onartuko **filmetatik hartutako irudiekin soilik osatutako** book trailerrak.
9. Epaimahaiak **euskararen zuzentasuna eta egokitasuna** aintzat hartuko ditu. Ez dira akats larriak dituzten lanak sarituko. (Bidalketa egin aurretik lanak errebasatzen gomendatzen dugu).
10. Irabazleak **epaimahai** batek hautatuko ditu. Epaimahaia lau lagunek osatuko dute.
11. Ikastetxeen kategoriako irabazleak hautatzeko garaian, **epaimahaiak bi multzotan banatuko ditu lanak: DBH1-2 multzoko lanak eta DBH3-4 multzokoak**. Hortaz, bi sari nagusi banatuko dira Ikastetxeen artean, eta ez da bigarren eta hirugarren saririk izango. Norbanakoen kategorian, ordea, maila guztiak batera lehiatuko dira, parte-hartze txikiagoa izaten baita sail honetan.
12. Publiko zabalak ere izango du bere iritzia emateko aukera. Orain arte bezala, boto bidez hautatuko da **PUBLIKOAREN SARIA** jasoko duen book trailerra. Edonork eman ahal izango du botoa, baina bakoitzak behin bakarrik bozkatu ahal izango du, kategoria bakoitzean boto bana emateko aukerarekin. **2020ko APIRILAREN 1etik MAIATZAREN 4ra** bitartean egongo da bozkatzeko aukera. Orduan aktibatuko da webgunean BOZKATU atala. Hortik bakarrik eman ahal izango da botoa. Jasotako book trailer guztien artean aukeraketa bat egingo da sarituko



diren bideoen kalitatea bermatzeko helburuz, **aukeratutako bideoak soilik sartuko dira publikoaren bozketan.**

13. Bozkatzen dutenen artean, *e-reader* bat zozkatuko da.

14. Liburu Gaztea Lehiaketan parte hartzen duen ikastetxe bakoitzak liburuen aholkulari eta sustatzaile izan direla ziurtatzen duen **agiria** jasoko du.

15. SARIAK:

a. IKASTETXEKA:

- DBH1-2: Sari bakarra; abentura txangoa lau lagunentzat, eta liburu eta diskotan gastatzeko 200 euroko bonua ikasgelarentzat.
- DBH3-4: Sari bakarra; abentura txangoa lau lagunentzat, eta liburu eta diskotan gastatzeko 200 euroko bonua ikasgelarentzat.

b. NORBANAKOKA: *e-reader* bat eta 100 euroko bonua liburu eta diskotan gastatzeko.

c. PUBLIKOAREN SARIAK:

- Ikastetxeen kategorian: 200 euroko bonua liburu eta diskotan gastatzeko.
- Norbanakoen kategorian: 200 euroko bonua liburu eta diskotan gastatzeko.

d. BOZKETAN PARTE HARTU DUTENEN ARTEAN *e-reader* bat zozkatuko da.

16. 2019-2020 ikasturteko Liburu Gaztea Book Trailer Lehiaketako irabazleek (Ikastetxeak Kategorian, DBH3-4), **hurrengo edizioko spota** edo promozio-bideoa egiteko aukera izango dute.

17. Lanak aurkezteko azken eguna **2020ko MARTXOAREN 6a** izango da.

18. Sariak hutsik geratuko dira epaimahaiaren ustez jasotako lanek eskatutako maila eskaintzen ez badute.



Irakurgaiak

Ikasturte honetako Liburu Gaztea Lehiaketarako irakurgaiak aukeratu ditu jada Liburu Gaztea Batzordeak. 2018an euskaraz gazteentzat argitaratu zen guztia irakurri ostean, honakoa da [hautatutako liburuen](#) zerrenda:

LIBURU GAZTEA 2019-2020	
LIBURU HAUTATUAK	
DBH 1 eta 2 (12-14 urte)	<i>Sinbad deitzen zidan.</i> Francisco Castro. Alberdania, 2018.
	<i>Hasiera berri bat.</i> Gwenola Morizur. Ilustratzailea: Marie Duvoisin. Harriet, 2018.
DBH 3 eta 4 (14-16 urte)	<i>Eztia eta ozpina.</i> Patxi Zubizarreta. Alberdania, 2018.
	<i>Maitasuna zailegia da.</i> Andres Guerrero. Itzultzailea: Joseba Santxo. Begiko, 2018

Horrez gain, orain arte bezala, [Ezinbestekoen](#) zerrendatik ere aukeratu daiteke irakurgai, maila bakoitzak ikasleen adinari dagokion libururen bat hautatu ahal izango du zerrenda horretatik. Ezinbestekoen zerrenda, literatur aditu zenbaitek osatutakoa da, gazteentzat orain arte euskaraz argitaratu diren libururik gomendagarrienak biltzen dituena. Hortaz, parte hartzaileek nobedadeen artean edo betiko irakurgai onenen artean egin ahal izango dute hautua.



Galtzagorri Elkartea. Zectoria kalea 25, behea. 20013 DONOSTIA.
Telef.: 943 471 487 E-maila: liburugaztea@galtzagorri.eus / galtzagorri@galtzagorri.eus

www.galtzagorri.eus/liburu-gaztea